

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 28koa, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zergarekin lotua

I

Auzitegi Konstituzionalaren epai batek, 2017ko martxoaren 1ekoak, konstituzioaren aurkakotzat eta baliogabetzat jotzen ditu uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauaren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikulua (Arabako Lurralde Historikoko hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren artikulua), balioaren gehikuntzarik ez dakarten zenbait egoera zergapetzen dituztenez gero.

Epaiaren oinarri juridikoen artean, zehazten da zerga egitatea legeriak ezarritako egintza edo aurrekaria dela eta hura gauzatzean zerga betebeharrak bat sortzen dela, horrek gaitasun ekonomiko bat agerian jartzen baitu. Gauzak horrela, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen Foru Arauari dagokionez, hori guztia egiazko fikzio juridikoa da; izan ere, haren arabera, eskualdatua denean, hiri lur baten titularitate hutsak titularrari sorrarazten dio zergak ordaindu beharko dituen balio gehikuntza bat, hau da, zergapetu daitekeen gaitasun ekonomiko bat, baina kasu bakoitzaren benetako zirkunstantziak bazter utziz. Hori dela eta, arauak ez du bide ematen balorazio arauen aplikaziotik ateratzen denaz bestaldeko emaitza bat egiaztatzeko.

Nolanahi ere, auzitegiak aipatzen duenez, guztiz baliozkoa da balio gehikuntzak zergapetzera zuzenduta dagoen legegintzazko politika, baldin eta gaitasun ekonomiko potentzialak objektiboki zenbatzeko sistema bat baliatzen bada, agerian jarritako benetako gaitasun ekonomikoaren arabera egin beharrean.

Hori bai, oso kontuan hartzekoa da gauza bat dela errenta potentzial bat zergapetzea (hiri lur guztietan denboraren poderioz sor daitekeen balio gehikuntza) eta oso bestelakoa dela errenta irreal bat zergapetzea. Eta desberdintasun hori azpimarratzea oso garrantzitsua da, hori hala izanez gero, zalantzan jarritako manua gaitasun ekonomikoaren printzipio konstituzionalaren aurkakoa bailitzateke; izan ere, printzipio hori desagertzen da, baldin eta tributua zergapetutako gaitasun ekonomiko potentziala izan beharrean hutsala edo faltsua bada.

Epaiak baieztatzen du hiri lurren balioan 46/1989 Foru Arauaren 4 eta 7.4. artikuluek gehikuntzarik gabeko kasuei edo ez-gehikuntzako kasuei ematen dien tratamenduak ez duela arrazoizko justifikaziorik batere, zergaren subjektu pasiboari ezartzen baitie denboraren poderioz sor daitezkeen gehikuntza egoerei dagokien zerga zama bera eta horrek berekin baitakar gaitasun ekonomikorik ez duten egoerak zergapetzea. Beraz, hori guztia zuzen-zuzenean kontrajartzen zaio 1978ko Konstituzioak bere 31.1. artikuluan bermatzen duen gaitasun ekonomikoaren printzipioari. Horrenbestez, epaitutako manua konstituzioaren aurkakotzat jo behar dira, gaitasun ekonomikorik gabeko egoerak tribututik kanpo uztea aurreikusitako ez duten heinean, balio gehikuntzarik ez dagoen kasuetan.

II

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen xedea da arauen aldetik berehalako erantzuna ematea epai horrek hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren aplikazioan izandako eraginei; hori guztia ez da oztopo izango etorkizunean arauzko erregulazio sakonagoa ezartzeko.

Erregulazio honek oinarritzat hartzen du honako aurrekari hau: zerga ordaintzeko betebeharra sortzeko ezinbestekoa izatea lurren balioaren gehikuntza egon dela. Gehikuntza hori

agerian jartzen da lurren jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo lurren gaineko edozein gozamen eskubide erreal, jabaria mugatzen duena, osatzen edo transmititzen denean.

Ondorio horietarako, lurren balioaren gehikuntza zehaztuko da lurren jabetzaren erosketa eta eskualdaketa balioak alderatuz, edo hiri lurren gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide errealean osaera edo eskualdaketa alderatuz. Gauzak horrela, lurren balioaren gehikuntza sortuko da eskualdaketa balioa erosketa balioa baino handiagoa denean.

Lurren balioaren gehikuntza izanez gero, orduantxe ezarriko dira zerga oinarria, zerga kuota eta zerga osatzen duten gainerako elementuak, betiere tributu hau arautzen duten xedapen orokorrekin bat etorriz.

Bestalde, eta segurtasun juridiko handiagoa bilatu nahian, arauzko testu honi xedapen iragankor bat erantsi zaio, erregulazio berriak dakartzan eraginak ezartzen dituen.

Azkenik, azken xedapen bat jaso da Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau indarrean sartzeari buruz. Zehatzago ezartzen da Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau indarrean sartuko dela ALHAOn argitaratzen den egunean eta ondorioak ekarriko dituela Estatuko Aldizkari Ofizialean Auzitegi Konstituzionalaren 2017ko martxoaren 1eko epaia argitaratzen denetik aurrera.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege jaurbideari buruzkoak, Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuta, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri bat, lehenengoa, jaso da uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauan, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoan; hona hemen:

“Lehenengoa. Hiri lurren balioaren gehikuntza zehaztea.

Bat. Zerga ordaintzeko betebeharra sortzeko ezinbestekoa izango da lurren balioaren gehikuntza egon izana. Gehikuntza hori agerian jartzen da lurren jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo lurren gaineko edozein gozamen eskubide erreal, jabaria mugatzen duena, osatzen edo transmititzen denean, eta xedapen gehigarri honen arabera zehaztuko da.

Bi. Aurreko idatz zatian ezarritako ondorioetarako, lurren balioaren gehikuntza dagoen ala ez zehaztuko da lurren erosketa balioa edo, hala badagokio, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errealean osaera edo erosketaren balioa alderatuz eskualdaketa balioarekin edo, hala badagokio, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errealean osaera edo eskualdaketa balioarekin.

Aurreko lerroaldean aipatutako balioak izango dira kontuan hartuko direnak edo, hala badagokio, kontuan hartu beharko liratekeenak, lurren jabetzaren transmisioa edo lurren gaineko jabaria mugatzen den edozein gozamen eskubide errealean osaera edo transmisioa kargapean jartzen dituzten zergen ondorioetarako.

Gauzak horrela, gerta daiteke lurren balioaren gehikuntza izan dela edo izan ez dela ezin egiaztatzea bigarren idatz zati honetan ezarritakoaren arabera; halakoetan, beraz, erreferentziatzen hartuko da kasu bakoitzean dagokion balio erreala.

Atal honek aipatzen dituen balioei dagokienez, ez da inolako gastu, hobekuntza edo bestelako kontzeptuen batuketarik egingo eta ez da inolako gaurkotzerik izango denbora igarotzeagatik.

Gerta daiteke bigarren idatz zati honetan aipatutako lurren balioaren gehikuntza zehazteko erreferentziatzen hartutako balioetan beren-beregi ez bereiztea eraikuntzari dagokion balioa eta

lurrari dagokiona; halako kasuetan, erreferentziatzen hartuko da zerga hau sortzeko unean indarrean dagoen katastro balioaren proportzioa, lurzorua balio katastroarena eta eraikuntza balio katastroarena.

Hiru. Aurreko bigarren idatz zatiak aipatutako balioak zehazteko datak honako hauek izango dira: lurra erosteko datari dagokionak edo, hala denean, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreala osatzeko edo erosteko datari dagokionak, eta lurra eskualdatzeko datari dagokionak edo, hala denean, jabaria mugatzen duten gozamen eskubide erreala osatzeko edo eskualdatzeko datari dagokionak.

Lau. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera lurraren balio gehikuntzarik ez badago, egingo diren transmisioen ondorioetarako, aintzat hartuko dira eskualdatzaileak etorkizunearan lurzoru erosketara eta transmisioak zein unetan egingo dituen, une horiei dagokien balioak.

Bost. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera lurren balioaren gehikuntzarik ez badago, Foru Arau honen 7. artikuluan ezarritako betebeharrak formalak ere bete behar dira.

Sei. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera lurren balioaren gehikuntzarik egin ez gero, zerga oinarria, zerga kuota eta zerga hau eratzeko gainerako elementuak zehaztuko dira, betiere tributu hau arautzen duten xedapen orokorrekin bat etorritik.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Aplikatzekoa den araubide iragankorra, hiri lurren balioaren gehikuntza gainerako zergari dagokionez.

1. Auzitegi Konstituzionalaren 2017ko martxoaren 1eko epaia argitaratu aurretik sortutako zergei dagokien likidazio irmoak.

Hiri lurren balioaren gehikuntza gainerako zergaren likidazioez denaz bezainbatean, betiere Auzitegi Konstituzionalaren 2017ko martxoaren 1eko epaia Estatutako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik izandako sortzapenei dagokienez eta data horren aurretik irmoak izanik, ez da aplikagarria izango Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen artikulua bakarra. Gauzak horrela, honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Ez da zuzenketarik, berrezarpenik edo itzulketarik izango, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen artikulua bakarrenean aplikazioan oinarriturik dagoenik.

2. Horiekin erlazioatutako bilketa prozedurek jarraituko dute guztiz amaitu arte eta atzeratu edo zatitutako zerga zorrak oso-osorik exijituko dira.

2. Hiri lurren balioaren gehikuntza gainerako zergaren likidazioak, Auzitegi Konstituzionalaren 2017ko martxoaren 1eko epaia argitaratu ondoren emanak, data hori baino lehenagoko sortzapenei dagokienak.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen artikulua bakarrenean xedatutakoa aplikagarri izango zaie Auzitegi Konstituzionalaren 2017ko martxoaren 1eko epaia Estatutako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren egindako hiri lurren balioaren gehikuntza gainerako zergaren likidazioei, data hori baino lehenagoko sortzapenei dagokienei, betiere data hori baino lehenago ez bada eman sortzapen horiei dagokien likidazio irmorik.

3. Administrazio bidean errekurtsioa jarri zaien likidazioak, ebazteke daudenak.

Administrazio bidean dauden eta Auzitegi Konstituzionalaren 2017ko martxoaren 1eko epaia Estatutako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean ebazteke dauden errekurtsioak likidazioaren ardura duen administrazio organora bidaliko dira, egoki bada likidazio berria egin dezan, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen artikulua bakarrenean xedatutakoa kontuan hartuz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratzen den egunean eta ondorioak ekarriko ditu Estatuko Aldizkari Ofizialean Auzitegi Konstituzionalaren 2017ko martxoaren 1eko epaia argitaratzen denetik aurrera.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-gasteiz, 2017ko martxoaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ